

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko urriaren 4a. IX. urtea. 2.410. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosaldeko areto futboleko lau talde ari dira hirugarren mailako lehian

Tolosako Laskorain eta Tolosala-Hirukide, Ibarako Lauburu eta Villabonako Egintza dira maila horretan dauden eskualdeko taldeak **06-7**

## Asteasuko Udalak 32 etxebizitza libre sustatuko ditu

Maria Pilar Legarra alkateak esan duenez, tasatuen prezioan salduko dituzte; etxeak Lamiategi eremuan egingo dituzte eta udaberrirako lanak hasita egotea espero dute **04**

## Belauntzan laugarren aldiz egingo dute azoka berezia

Igande goizean zehar produktu asko ikusi eta erosi ahal izango dira herriko plazan **05**

## Ekitaldi ugari antolatu dituzte Aurrera kirol elkartearen eguna dela eta

Larunbatean 09:00etan hasiko da jaiak; bazkaria eta gero bazkideek ingurutxo dantzatzuko dute **03**



→ **Herritarrak, gertuago.** Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat kide izan berri dira Tolosako kultur etxean, eskualdeko herritarrengana hurbildu asmoz. Horien artean zen Martin Garitano ahaldun nagusia ere, eta honek bilkuraren helburu nagusia «politika egiteko beste eredu bat martxan jartzea» zela azaldu zuen. **02**

Udazken honetan jantzi HITZArekin!

Hitzaren harpidedunentzat  
**30 €**



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO hitza

FUNERARIA  
**VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)





Kultur etxeko aretoa bete egin zen asteartean, Gipuzkoako fiskalitateaz eta gizarte politikaz aritzeko. I. URKIZU

# Fiskalitateaz eta gizarte politikaz aritu da herritarrekin, Garitano

‘Herritarrekin’ egitasmoaren barruan izan da Tolosan ahaldu nagusia, aurrekontuak prestatzeko

## Itzea Urkizu

Martin Garitano Gipuzkoako diputatu nagusia Tolosan izan zen asteartean, aldundiak duela aste batzuk abiarazi zuen *Herritarrekin* egitasmoaren barruan. Helburu nagusia, «herritarrengana hurbildu, eta politika egiteko beste eredu bat martxan jartzea» dela nabarmendu zuen Garitanok.

Kultur etxeko areto nagusia bete egin zen, eta aldundiko kideek beren azalpenak eman ondoren, lantaldeetako dinamizarekin

abiarazi zuten saioa. Horrela, herritar bakoitzak aukeratu zuen eztabaidagaia: fiskalitatea eta aurrekontuak, alde batetik, eta gizarte politikak, bestetik.

Martin Garitanok, aldundiak dituen eskumenen artean nabarmenenak bi hauek direla azpimarratu zuen: «Gaur egun kezka nagusietako bat da krisiari aurre egiteko bideak bilatzearena, eta, era berean, gizarte politiketara gero eta garrantzia handiagoa dute, gero eta urte gehiagoz bizitzaren garelako. Beraz, fiskalitate egokia behar dugu, garapen ekonomikoaz gizarte politikak onarazteko».

Honen harira, aldundiko aurrekontuaren %47a gizarte politiketara bideratzen dutela azaldu zuen diputatuak, «lehentasuna» dela azpimarratuz: «Gipuzkoako ekonomia orain dela urte batzuk

baino okerragoa da, baina zenbait lekutan baino hobea da, eta ehun industrialia indartsua da. Beraz, diru gutxiagorekin erantzun gehiago eman behar ditugu, ahalegin bereziak eginez eta jendearen ongizatea lortuz».

## Aurrekontuak herritarrekin

2011ko foru hauteskundearen ondoren, «politika egiteko modu berri» batez aritu zen Bildu, «herritarrekin elkarlanean aritzeari» garrantzia emanez.

Lehen urte hartan, Gipuzkoako aldundiak *Kontuak Garbi* egitasmoa martxan jarri zuen, eta herriz herri aurkeztu zituzten aurrekontuak. Garitanok, «herriak Foru Aldundia gerturatzea eskertu» egin zuela uste du: «Urruneko irudia zegoen, baina oraindik ere aurrerapauso asko eman behar ditugu».

Hori dela eta, aurrekontuak osatu baino lehen bertaratu dira aurtan, herritarrengana, *Herritarrekin* egitasmoaren bidez: «Herritarrekin hitz egin nahi dugu, kezka eta zalantzak entzuteko, eta gero hori Batzar Nagusietara helarazi eta negoziatzeko».

# Kirola euskaraz egitea sustatzeko hitzarmena sinatu dute

Tolosa CFek eta TAKEk, zenbait konpromiso beteko dituzte, urte betean, hitzarmena dela eta

## I. Urkizu

Galtzaundi euskara taldeak sustatuta, Tolosa CFek, Tolosaldeko Arraun Klubak eta Tolosako Udalak hitzarmena sinatu dute, «euskararen normalizaiora bidean, kirol esparruan ere euskararen erabilera sustatzeko».

Agerraldian, Inaki Irazabalbeitia Hizkuntza Politika eta Hezkuntza zinegotzia, Galtzaundiko Xabier Saizar, Tolosako CFeko Iñaki Arratibel eta TAKEko Iñaki Kruz izan dira, eta guztiak nabarmendu dute, kirolaren esparruan euskararen ezagutza errealitate bat den arren, «kirolari gazteen artean arazo bat» dela euskaraz aritzearena.

Euskara eskolaz kanpoko jarduerekin identifikatzeari berebiziko garrantzia eman dio Galtzaundiko ordezkari Xabier Saizarrek, izan ere, euskara taldeak

iaz egindako neurketa batzuen arabera, «euskaraz espazioak irabazi behar» dituela ondorioztatu zuten; horietako bat da, kirola.

Horrela beraz, eta «oso markatutako joera» horiei kontra egin asmoz, sinatzaileek zenbait konpromiso hartu dituzte euskararen erabilerrari begira.

## Urte beteko epean

Hitzarmena sinatu duten kirol taldeek, urte beteko epean beteko dituzten zenbait konpromiso hartu dituzte, euskararen normalizazio bidean.

Horrela beraz, taldeen izen nagusia euskaratuko dute, errotilu guztiak euskaraz jarriko dituzte, kanpora begirako agirietan euskara nabarmenduko dute, elkarrekin webguneetako atal guztiak euskaratuko dituzte, eta 16 urte-tik beherako nahiz gorako gazteekin euskaraz lan egingo dute, besteak beste.

Azken helburu hau lortze bidean begirale edo boluntario eskaldunak beharko balituzte, Galtzaundi euskara taldea arduratuko litzateke horretarako kanpainak abian jartzeaz.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



Udaletxeko pleno aretoan sinatu zuten hitzarmena. I. URKIZU

## → Laburrak

### ‘Cuenta lo que cuenta’ antzeziana, gaur, Orbelan

**KULTURA** › Intujai Teatrok antolatutako Zikloia egitasmoaren barruan, *Cuenta lo que cuenta* antzeziana izango da, gaur, 22:30ean, Orbela tabernan, El Patio taldearen eskutik.

### ‘Goenkale’ antzeziana, bihar, Leidor aretoan

**KULTURA** › Euskal Telebistako telesailen oinarrituriko antzerki obra, bihar ikusi ahal izango da, Leidor aretoko oholtzan, 20:30etik aurrera. Sei aktore ariko dira eszenatokian, eta sarrerak eskuragarri daude jada. Batetik, [www.kutxasarrerak.net](http://www.kutxasarrerak.net) webgunean eros daitezke, eta bestela, Leidorreko leihatilan ere salgai daude.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxe barneko langile-interna.** Amezketako etxe batean, interna moduan lana egingo duen emakume euskalduna behar dugu. Interesatuak, deitu 653 721858 telefono zenbakira.

### Zine bonu berriak salgai, gaurtik aurrera

**KULTURA** › Gaurtik urriaren 15a bitarte, zine bonuak salgai izango dira. Guztira, hamaika film eskainiko dituzte, eta gaueko saioetarako bonuak 9 euroko prezioa izango du; edozein saio-etara joan nahi duenak, berriz, 12 euro ordaindu beharko du.

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**KEY-LAN**  
Sarraigintza

Nalartea etorb. 13 behean - TOLOSA  
Abuz. 670 41 79 22  
Tel./Fax: 943 65 03 13

# Aurrerak bere eguna ospatuko du, etzi

Leitzako elkartearen talde bakoitzak ekitaldiak antolatu ditu; seigarren urtez egingo dute festa eguna

**Imanol Garcia Landa** Leitza

Aurrera kirol elkarteak bere eguna ospatuko du larunbatean. Berreskuratu zutenetik seigarrena izango da aurtengoa. Izan ere, elkarteke Karlos Agirre lehendakariak azaldu duenez, «Aurrera Eguna badu bere historia. Orain 50 eta 60 urte festetan Aurrera Eguna egiten zen. Oso polita izaten zen, Aurrerakoa sentitzen zen jende asko etortzen zen bazkaltera. Festetako azken eguna izaten zen». Hori pixkana galtzen joan da eta berriz pizteko gogoarekin hasi dira berriro egun berezia antolatzen.

Larunbatean, beraz, ekitaldi jositako izango da Leitza. Aurrera elkarteak osatzen duen talde bakoitzak bere ekitaldia antolatu du, eta bazkaria izango da denak elkartzeko unea. Iaz 120 pertsona bildu ziren eta aurtengoan ere kopuru horretara iristea espero dute. Agirrek dioenez, Aurrera oso errotuta dago Leitza, eta guztira 350 bazkide ditu: «Bazkide batzuek ez dute parte hartzen talderen batean, baina Aurrerakoak sentitzen dira eta horregatik bazkide dira eta kuota ordaintzen dute». Nolabait esateko, Leitza Aurrerakoa izateko sentimendua zabalduta dago. Kirol eta kultura



Iazko Aurrera Egunekeo bazkarian 120 pertsona elkartu ziren Karrapen. A. IMAZ

arlorako hainbat ekimen bultzatzen dituzte, eta beraien egoitza beste herriko hainbat taldek erabiltzen dute.

## Estatutuaren 40. urteurrena

Aurrera elkarteak 80 urte inguru ditu, baina estatutuak beranduago idatzi ziren. Zehazki aurtin betetzen dira 40 urte estatutuak jaso zirela. Hainbat talde edo batzorde ditu elkarteak: futbola, pilota eskola, mendi taldea eta mendi bizikletarena. Eperra zaldi taldea eta dantza taldea. Guztia koordina-

tzen etxeko batzordea deritzona dute, eta honek egiten du Aurrera Egunaren antolaketak. Talde bakoitzak bere autonomia eta aurrerakontua du eta, besteak beste, pilota eskolan 70 neska-mutil daude, eta futboleko lau mailatan taldeak dituzte.

Horrez gain, herriko hainbat ekitaldiren antolaketan parte hartzen du Aurrerak: Ihotzak, Orantzaroren etorrera, Errege Magoen desfilea, herri krosa, herriko festak...

Orain arteko Aurrera egunen

balantze «oso ona» egin du Agirrek. Batzorde guztietakoek antolatzen dute ekitaldiren bat. Hala, mendi bizikleta marxa izango da, haurrentzako zaldian ibiltzeko, tirolinan jaisteko eta rokodromoan eskalatzeko aukera, pilotariaren eta dantzariaren saioak izango dira, arratsaldean nagusien futbol taldekoek partida izango dute Lekunberrin, eta horretaz gain, ez da faltako musika egun guztian zehar. Une berezietako bat bazkalosteko ingurutxoak izango da. «Leitza ingurutxoak sekula-

## ↓ Egitaraua

### URRIAK 6, ETZI

- **09:00.** Aurrera BTT taldearekin, bizikleta irteera geltokitik abiatuta, haur eta helduei zuzendua.
- **09:00.** Txistularien diana.
- **10:00-13:00.** Haurrentzat, rokodromo, tirolina eta zaldi ibilaldia. Tartean, areto futbol partida, plazan.
- **11:30.** Aurrera pilota eskolako pilotariaren saioa, plazan.
- **12:30.** Aurrerako dantzariaren saioa, plazan.
- **13:00.** Incansables txaranga-ekin poteoa.
- **14:30.** Aurrerako bazkideen bazkaria Karrapen. Bazkal ostean bazkideen ingurutxoak. Ondoren Incansables txaranga eta buruhandiek poteoa.
- **14:30.** Aurrerako bazkideen bazkaria Karrapen. Bazkal ostean bazkideen ingurutxoak. Ondoren Incansables txaranga eta buruhandiek poteoa.
- **21:30.** Luntxa Aurrera elkartearen era festarekin jarraitzeko gizon orkestra Aurrerako atarian.

ko xarma du», dio Agirrek. «Oso polita izaten da. Garai bateko ohitura da Leitza. Bazkariaren ondoren, jendea ateratzen zen soka dantzan. Mutilak ateratzen dira eskutik hartuta plazara eta gero neskek ateratzen dituzte dantza egitera».

Egun berezia izango da, beraz, etzikoa. Elkartetik blusa beltza, Aurrerako ikurrarekin, jartzera animatu dituzte bazkideak eta festan parte hartuko dutenak.

## Bi eskualdeetako lau pilotari, Lau t'erdiko txapelaren bila

Barriola eta Bengoetxea VI.a leitzarrak, Leitza bizi den Olaizola I.a eta Saralegi amezketarra ariko dira lehian

**I. Garcia Landa**

Bi eskualdeetako lau pilotari ariko dira lehen mailako Lau t'erdiko Txapelketan: Barriola eta Bengoetxea VI.a leitzarrak, Leitza bizi den Olaizola I.a eta Saralegi amezketarra. Zarauzko Karlos Arguiñano jatean egin dute txapelketaren aurkezpena, eta berritasun nagusia finalerdietako ligaxka final-laurdenetara aurreratzea izan da. Finalerdietako partida bakarrera jokatuko dira.

Bi eskualdeetako pilotariak aurkari hauek izango dituzte lehiaketan: Xala, Martinez Irujo, Gonzalez, Titin III.a, Retegi Bi, Mendizabal III.a, Urrutikoetxea, Arretxe II.a, Albu, Berasalzu VIII.a eta Olaizola II.a. Zerrendako azken pilotaria Merino II.a, Idoate edo Aritz Lasa izango da.

Olaizola I.ak Lekunberrin jokatuko du partida, hilaren 12an, baina oraindik ez daki zein izango den aurkaria, Merino II.a, Idoate edo Aritz Lasaren artean asteberu honetan izango dituzten neurketatik aterako baita. Saralegi Albusuren aurka jokatuko du, hilaren 13an, Iruñeko Labrit pilotalekuan.

Iazko txapeladuna Olaizola II.a izan zen eta bera da txapela jantzeko faboritoetako bat.


**TOLOSALDEA**  
 GOIMAILAKO L. H. INSTITUTUA



**LANERAKO PRESTAKUNTZA** (Langile eta langabeteentzat) **DOAKO IKASTAROAK**

IKASTARDAK (UNITATE FORMATIBOA)	ORDURAK	HABERA	ORDUTEGIA
Sistema eragilea (Windows), Informazio bilaketa: Internet / Intranet eta posta elektronikoa (Euskeraz)	30	2012-10-15	Astelehenerdik ostegunera 18:00 - 21:00
Aplikazio informatikoak testuak tratatzeko (Word)	30	2012-11-20	
Txirbil haroketa bidezko prozesuaren mekanizazioa (Tornua) (Euskeraz)	80	2012-10-8	
Txirbil haroketa bidezko prozesuaren mekanizazioa (Fresatzeko makina)	80	2012-11-19	
Txirbil haroketa bidezko pieza fabrikatzeko CNC programak egitea. (CNC-HEIDENHAIN fresatzeko makina)	80	2012-12-3	
Planoen interpretazioa soldaketan	60	2012-10-15	
Ruzilo elektrodoko bidezko soldaketa (Euskeraz)	90	2012-11-26	
Automatizazio elektrikoaren muntaiak eta konponketa (Koadre elektrikoak)	60	2012-10-22	
Osagarri automatizazio programagarriak (SIEMENS S7)	35	2012-12-3	
Klimatizazio instalazioen konfigurazioa eta kalaketa	40	2012-10-15	
Berokuntza instalazioen energia berriztagarriak (Geotermia, aerotermia, biomasa, eguzki termikoa,...)	30	2012-11-19	
Berokuntza instalazioetako erregulazio automatizazioak elementuak (Termostatoak, Presostatoak,...)	30	2012-12-10	





**ESKAINZA ETA ESKAERAK**  
[www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)





Asteasuko Lamiategiko proiektua berdegunean eta aparkalekuan joango da, pilotalekuaren eta frontoiaren artean. A. IMAZ

## ↓ Datuak

### ASTEASUKO LAMIATEGIKO ETXEBIZITZAK: 1. FASEA

**Kopurua:** 32 etxebizitza, libre-ak.

**Kokalekua:** Asteasuko herrigunean, pilotalekuaren eta igerilekuaren artean.

**Prezioak:**

■ Bi logela+garajea+ trastelekua: 180.303,63 euro (30 milioi pezeta inguru), BEZa aparte.

■ Hiru logela+garajea+ trastelekua: 198.333,99 euro (33 milioi pezeta inguru), BEZa aparte.

**Erosleak:** Hogei laguneko zerrenda osatu du jadanik udalak.

**Egitasmoa:** Etxeak 2013ko udaberrian hasiko lirateke eraikitzen. Giltzak jasotzeko data, 2014ko udan edo udazkenean kokatu du udalak.

**Informazio gehiago:**

Asteasuko udaletxean, [www.asteasu.net](http://www.asteasu.net) webgunean edo 943 69 19 07 telefono zenbakira deituta.

# Legarra: «Etxebizitza libreak tasatuen prezioan salduko dira»

Asteasuko Lamiategi eremuan, pilotalekuaren eta igerilekuaren artean, 32 etxebizitza libre sustatu nahi ditu udalak

Erosleen eta eraikitzailearen artean bitartekari lanak egingo ditu udalak

## Asier Imaz Asteasu

Asteasuko Udalak 32 etxebizitza eraiki nahi ditu herrigunean, pilotalekuaren eta igerilekuaren artean, Lamiategi izeneko eremuan. Herritarren artean galdeztika ibili ondoren, hogeitaz laguneko zerrenda osatu du udalak, eta proiektuarekin aurrera jarraitzeko, zortzi erosle gehiago izatea nahiko luke. Etxebizitza libreak, «tasatuen prezioan» salduko dituztela dio Maria Pilar Legarra alkateak. Etxebizitzak bi edo hiru logelakoak izango dira, eta trastelekua eta garajea salneurriaren barruan sartuko lirateke: «Ideia bat egiteko, 30 edo 33 milioi pezeta inguruko kostua edukiko dute, BEZa aparte», dio Legarrak.

Lehentasuna herritarrei eman ostean, etorkizuneko herritarrek eskualdean eta inguruko herrietan bilatu nahi ditu orain udalak. Hortaz, informazioa nahi dutenek udaletxearekin jarri beharko dute harremanetan: 943 69 19 07 telefonoan, [www.asteasu.net](http://www.asteasu.net) helbidean, edo egoitzan bertan.

Data zehatzetaz hitz egitea zaila dela onartu arren, Maria Pilar Legarra 2013ko udaberrian etxeak eraikitzen hasiak egotea espero du, 2014ko udazkenerako giltzak ematen hasteko. Aurrez, eraikitzaileekin hitz egin beharko da, lehiaketa bidez proiekturik egokiena aukeratzeko. Udalaren funtzioa bitartekari lanak egitea izango dela dio alkateak.

32 etxebizitza hauek Lamiategiko proiektuaren lehenengo fasea osatuko dute, ondoren, eremu berean, beste bi eraikuntza bloke egiteko asmoa du udalak, baina hauek ez daukate data jakinik, udal ordezkariaren esanetan.

## Udalaren konpromisoa

Asteasuko Udalerak udal talde berria iritsi zenean, hauteskunderen ondoren, etxebizitzaren gaia aztertzen hasi ziren inkesta baten bidez. Honela azaltzen du alkateak: «Etxebizitzak nahiko azkar egiteko bi aukera edo eremu zuden herrian, Eskola Txikiak eta Lamiategi. Herritarren artean galdeketa bat egin genuen, eta 40 lagunek azaldu zuten etxebizitza erosteko interesa. Gehienek, Lamiategiko eremuko baldintzak aukeratu zituzten, besteak etxe txikiagoak baitziren».

Asteasuk 25-35 urte bitarteko gazte kopuru altua dauka: 226. Alkatearen esanetan, helburuen artean hauei herrian gelditzeko aukera bat ematea zegoen. Gauzak horrela, eta herritarren iritzia kontuan hartuta, udala proiektua sustatzen hasi zen, eta azkenean, hogeitaz laguneko zerrenda osatu zuen. Legarraren esanetan, «interesa azaldu zutenei, maileguak lortzeko nolako erantzunak edo zailtasunak zituzten galdetzeko eskatu genien, eta zailtasunak handiagoak izan zirenez, hasierako zerrenda hura erdira jaitsi zen».

Norbanakoei ez ezik, eraikuntza enpresei ere ez dizkie gauzak erraz jartzen banketxeek Legarraren esanetan: «Eraikitzen hasi aurretik, mailegua emateko, erosle kopuru bat edukitzea eskatzen dute bankuek», dio alkateak. Arrazoi horregatik, Legarrak zerrendan zortzi izen gehiago egotea nahiko luke, eta lan horretan ari da buru belarri: «Herrian eta inguruko industrigunean informazioa zabaldu dugu, eta orain, eskualdera eta inguruko herrietara iritsi nahi dugu».

Urte berriarekin batera lehiaketara ateratu nahi du udalak proiektuaren lehen fasea. Erosleen eta eraikuntza enpresaren arteko harremanak bideratuta egon arren, ez du proiektua bere horretan ahaiztu nahi Maria Pilar Legarrak, eta eraikuntza enpresa gertutik jarraituko dutela gehitu du: «Udal honek konpromiso argi bat hartu du, eta hori argi eta garbi azaldu nahi dut. Prezioak ez dira igoko, eta kalitatea exijituko dugu. Eraikitzaile lehiaketara prezio baxuagoarekin joatan baldin bada, denentzat hobeto izango da, baina ez da kalitatearen trukean izango».

Modu horretara, bizilagunen eta eraikitzaileen arteko etorkizuneko arazoak ekidin nahi ditu Asteasuko alkateak: «Ez dugu nahi etxebizitzak eraiki ondoren arazoak egotea gauzak ez direla ongi egin, eta hori gertutik jarraituko dugu, eta bermeak eskatuko ditugu aldez aurretik. Eraikitzaile enpresa serioa izatea nahi dugu, finkoa, ez behin etxe-ekin eta desagertzen den horietakoa. Puntu honetan, benetan, oso zorroztzak izango gara, bizilagunekin konpromiso hau hartu baitugun».

**Bertako informazioari bertako produktuk**

**Egin HITZaren harpidedun irailaren 3tik urriaren 26ra eta jaso artzai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, OPARI**

Hitzaren harpidedunen artean, bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia zozkatuko dugu

Artizano nekazalburuzineak  
Zinzaga, 46  
HONDARRIBIA (Gipuzkoa)  
Tel: 943 642 337 / 955 721 834  
[www.nekatur.net/artizano](http://www.nekatur.net/artizano)

Harremanetarako:  
902 82 02 01 - [hazteak@hitza.net](mailto:hazteak@hitza.net)

**hitza** net

# Belauntzako nekazariak eta artisauek euren produktuak aterako dituzte igandean



Pasa den urteko azokan bezala, igande honetan ere izango da Belauntzan zer ikusia. **HITZA**

Laugarren urtez azoka egingo dute; animaliak, barazkiak, artisautza, jatekoa eta edatekoa izango dira, goiz osoan

## lñigo Terradillos Belauntza

Belauntzako nekazariak euren produktuak eta animaliak jendaurrean erakutsiko dituzte igandean honetan. *Belauntza, gambela bete arraultza* lelopean, laugarren urtez egingo dute azoka. Goiz pasa atsegina igarotzeko osagai guztiak topatu ahalko dira: jatekoa eta edatekoa izango da, musika, ikusi eta erosteko gauza ugari eta zozketa.

Herriko sei baserrietako hainbat animalia plazaraino eramango dituzte jendeak ikusteko. Behorrek, behiak, astoak, ahuntz enanoak edota poneyak izango dira azokan. Azken hauetan gaztetxo enek paseotxo egiteko aukera ere izango dute.

Postuei dagokienez, denetarik

izango da. Esaterako, barazkiekin eta fruituekin osaturiko bi postu jarriko dituzte. Halaber, kontserbak, gazta, irasagarria edota ezta dastatu eta erosteko aukera ere izango da. Horrez gain, herriko artisauek eginiko lanekin osaturiko postuak ere izango dira.

Martintxo kultur eta kirol elkarteok ere postua jarriko dute. Bertan elkarrean prestatutako jatekoak eta edatekoak eskainiko dute.

### Bigarren eskuko materiala

Belauntzako azokan bigarren eskuko materialak ere bere lekua izango du. Bertan nagusiki arropa eta liburuak jarriko dituzte, Emausetik ekarriak. Dena den, edonork izango du aukera bere materiala salgai jartzeko. Horretarako 689 74 88 63 telefono zenbakira hots egin beharko da.

Azokara gerturatzen direnek otar eta guzti itzuli ahalko dute etxera. Izan ere, postuetako materialarekin osaturiko saski eder baten zozketa egingo dute.

## ↓ Datuak

### BELAUNTZAKO IV. AZOKA

- **Noiz.** 10:30etik 14:00etara.
- **Non.** Belauntzako plazan.
- **Zer.** Belauntzako baserrietako animaliak eta produktuak, artisauen eta bigarren eskuko materiala, jatekoa eta edatekoa eta otar baten zozketa.
- **Materiala.** 689 74 88 63 zenbakira hots egin behar da, bigarren eskuko materiala emateko.

10:30ean zabalduko ditu atek azokak, eta 14:00ak arte egongo da irekita. Martintxo kultur eta kirol elkarteok bazkideak eta hainbat herritarrek auzolanean antolatzen dute, eta udalak lagundu egiten du, batez ere, baliabideekin. Hori dela eta, udalak azoka posible egiten duten guztiak laguntza eskertu nahi du. Era berean, bertako nahiz inguruko herritar guztiak igande goizean azokara hurbiltzera gonbidatu ditu.

## → Laburrak

### EGArako prestatzeko ikastaroa urrian hasiko da

**TOLOSA** › Aitzol udal eskualtegiak hirugarren maila-EGArako antolatu du. Eskolak urrian hasiko dira. Informazio gehiago nahi duenak 943 65 10 06 edo 943 65 23 43 telefono zenbakietara hots egin ahalko du, edo bestela eskualtegiara bertara joan, Tolosako Gorosabel kaleko 34. zenbakian.

### Urrezko aizkolarien saioan ariko da Saralegi, igandean

**LEITZA** › Urrezko aizkolarien saioa izango da igandean, hilaren 7an, 12:30etik aurrera, Bilboko Deusto auzoko frontoian. Bertan, sei aizkolari ariko dira nor baino nor, 54 ontzako enborekin. Leitzako Ruben Saralegi lehian ariko da, eta berarekin batera, Aritz Irazabal Ugaokoa (Bizkaia), Aratz Mugertza (Bizkaia), Aratz Mugertza (Bizkaia), Kintana Zeriokoa (Araba), El Espinar herriko (Segovia, Espainia) Jon Rodriguez eta Asturiasko David Nareno.

### Lizarralderen 'Orbanak' gaur, irakurle taldean

**TOLOSA** › Galtzaundi irakurle taldeak Pello Lizarralderen *Orbanak* liburua aztertuko du gaur egingo duten saioan. Ohi bezala, Tolosako kultur etxean izango da, 19:30ean hasita. Hilketa baten inguruan ari da Lizarralderen nobela. Herriko fabrika lan eginen duen ingeniari aleman baten emaztea hilik azalduko da pagadi batean. Bi ahots edo plano daude nobelan, iheslariaren begi eta zentzumenetatik jasotakoa bata, eta iheslariaren arrastoren atzetik jarraien dabilkionarena, bestea.

### Begirale ikastaroa emango dute Inmakuladan

**TOLOSA** › Ikastolen elkarteak antolatuta, Inmakulada ikastetxean begirale ikastaroa emango dute. Urrian hasi eta ekainean bukatuko da, eta ostegunetan emango dute, 15:00etik 20:00etara. Informazio gehiago nahi duenak [aisiola@ikastola.net](mailto:aisiola@ikastola.net) helbidera idatzi dezake, edo bestela 944 35 43 40 edo 635 75 04 82 telefono zenbakietara hots egin.

## Azoka berezia antolatzeko lanetan ari dira Leaburun

Urriaren 14an egingo dute azoka, eta posturen bat jarri nahi duenak udalarekin jarri behar du harremanetan

### I. Terradillos Leaburu-Txarama

Belauntzan asteburu honetan egingo dute azoka berezia, eta hurrengo astean, urriaren 14an, euren bizilagunen, leaburuarren txanda izango da. Bertan ere, laugarren urtez egingo dute Barazki, Abere eta Artisauek azoka.

Azokan abere, artisautza, tresna zahar zein barazkiekin posturen bat jarri nahi duenak alde aurretik horren berri eman beharko du ondorengo telefono zenbakietan: 943 67 59 31 (Leaburuko udaletxea) edo 616 849 722 (Ion).

Bestalde, «azoka polita izan dadin eta giro paregabea igarotzeko» herritarren laguntza ere «ezinbestekoa» dela adierazi du Leaburuko Udalak. Horregatik, herritar guztiak animatu dituzte, prestakuntzan zein egunean bertan laguntzera. Lagundu nahi dutenek udaletxera hots egitearen nahikoa izango dute.



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

Urriak 7 • Igandea  
18:00etan  
Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
Asefa Estudiantes  
saskibaloia partida

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.





Eskualdeko lau talde ariko dira areto futboleko hirugarren mailan aurtengo denboraldian: Tolosako Laskorain eta Tolosala-Hirukide, Ibarako Lauburu eta Villabonako Egintza. Horrelako maila altu batean eskualde bateko lau talde elkartzea ez da ohikoa eta horrek Tolosaldeko areto futboleko dagoen indarra erakusten du.

## Aurreko postuetan izateko hautagaia

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

**A**urreko denboraldian bigarren B mailan izan ondoren, hirugarren mailara itzuli da Tolosako Laskorain taldea. Aurtengo entrenatzaile berria izango dute: Aitor Garcia. Bi urte bigarren taldeko entrenatzaile izan da eta iaz talde nagusiko Javi Mujikaren laguntzailea izan zen.

La talde guztia mantendu dute: bi jokalaririk joan dira, eta bigarren taldetik jokalaririk bat igo da. «Helburua goiko postuetan egotea da», esan du Garcia. «Gaizki hasi gara, baina ea buelta ematen diogun. Gure asmoa da bukaera arte goiko postuetan egotea, borrokatu ahal izateko». Laskorainentzat egokiena hirugarren maila dela uste du Garcia: «Lehenengo urtean goiko mailan egoteko nahiko justu ikusi ginen, eta ea aurtengoan lehenengo bost postuetan egoten garenean eta liga irabazteko borrokan sartzen garenean». Helburu horiek lortzeko taldea dutela dio entrenatzaileak. Esan bezala, ez dute hasiera ona izan,



Tolosako Laskorain areto futboleko talde nagusiko kideak. HITZA

lehenengo bi partidak galdu egin baitituzte, baina oraindik partida asko falta dira.

Lau talde daude Laskorainen. Talde nagusiaz gain, bi talde dituzte erregionalean, bat lehenengo mailan eta bestea bigarrenengoan, eta horrez gain, jubenilen taldea dute. Talde nagusiko kide

asko hainbat urte daramatzate Laskorainekin. «Jende gehiena zortzi-bederatzi urte daramatza areto futboleko Laskorainen jokatzen. Atzetik badator jende gaztea, hemendik gutxira ardura gehiago hartu beharko dituztenak taldean», esan du entrenatzaileak.

Eskualdeko lau talde maila berean izateak, lehia piztuko duela dio Garcia: «Mailaz jaitzi garelako, gure kontra gogo handiz lehiatuko dira beste taldeak. Gainera, lehenengo aldia izango da Ibarren aurka jokatzen dugula txapelketa ofizial batean». Lehia «sanoa» izango da, eta sailkapenean

besteen gainetik geratzeko gogoz ariko dira.

Garciak eskualdean areto futboleko dagoen maila nabarmendu du: «Ibarrek maila bat gorago egoteko aukera zuen, baina ez da igo diru arazoengatik. Tolosaldekoek bi maila igo dituzte hiru urtetan, eta gauzak ondo egiten ari direla ikusten da. Villabonan lehen zeuden bi taldeak bat egin zuten, eta uste dut ondo egin dutela horrela talde indartsuago bat sortu dutelako. Beraien etxean zaila da puntuak ateratzea».

Eskualdeko taldeen artean ezagutzen direla dio Garcia, eta horrek bere abantaila duela dio: «Beti dago besteei irabazteko gogo, ligan besteen aurretik egoteko asmoa, eta lehia sano hori ondo etortzen da ligarako, eskualderako, eta zaletuei begira ere».

Aurreko denboraldian Laskorain animatzera zaletu dezente joaten zirela Usabalera dio Garcia. «Maila altuko liga zen, profesionalak izandako jokalariekin, eta Usabalera nahiko jende etortzen zen. Aurtengo espero dugu ere jendeak erantzun duela».

## Berrantolaketa prozesuan

**I. Garcia Landa** Ibarra

**I**barako Lauburu taldeak mailaz igo zezakeen txartela eskuratu zuen aurreko denboraldian, baina ez du aukera hori baliatu. Juan Pablo Zubelzu entrenatzaileak azaldu duenez, «jokalariekin hitz egiten hasi ginen eta ikusi genuen arazoak izango zirela maila horretan aritzeko taldea osatzeko: batzuk lana aurkitu zutela, beste batzuk utzi nahi zutela... Ez genuen nahi gazteekin gora igo». Diru falta ere arrazoi bat izan da: «Dirua lortzea zaila ikusten genuen. Beraz, diruarekin larri ibiltzeko eta gero txapelketan sufrizten ibiltzeko, erabaki genuen hirugarren mailan geratzea».

Bigarren taldeak, Tolargik, euskal ligatik hirugarren mailara igo zela lortu zuen aurreko denboraldian. Azkenean bigarren talde horrek ez du jarraitzen eta horko zenbait jokalaririk lehen taldean

sartu dira. «Pentsatu dugu jende gaztea hazten joango dela eta izango dugula aukera datorren urtean edo aurrerago mailaz igo zezakeen», gaineratu du Zubelzuk. Horrez gain, zuzendaritza ere aldatu egin da. Aurreko lehendakaria joan egin da eta, beraz, zuzendaritza ere osatzen joan behar dute. Orain, bigarren talde gisa erregional mailan jokatzen duen Denak Taberna taldea da.

Sei jokalaririk berri dituzte aurtengoan. «Aurreko urtean jokalaririk gutxiarekin aritu ginen, 10 edo 11, atezainak kontatuta. Denboraldia ondo hasi ginen, baina gero lesioak etorri zirela edo jokalaririk batzuk lana aurkitu zutela, eta orduan kopurua motz gelditzen zen eta askotan sei edo zazpi lagun aritzen ginen entrenatzen. Azkenean entrenamenduen dinamika galtzen duzu», dio Zubelzuk. Beraz, hamalau laguneko taldea osatu dute aurtengorako.

Taldea osatzen ari badira ere,



Ibarako Lauburu taldea, aurrendenboraldian ateratako irudian. TXEMA VALLES

Zubelzuren ustez aurreko denboraldikoarena baino maila hobea goa emango dute: «Etorri den jende gaztea zein heldua, kalitatekoa da, beraz, ondo osatuko dira. Gero entrenamendu gehiago egingo ditugu, eta hor hobekuntza nabaritu egin behar da». Auzurako denboraldian ligako txapeladunak izan baziren, aurtengoan ere aukera ikusten du Zubelzuk

lorpena errepikatzeko. Eskualdean hirugarren mailan lau talde daudela jakitean, beste eskualdeetatik harritu egiten direla dio Zubelzuk. «Zaila da horrelakoak gertatzea. Ibarrek lau mila biztanle ditu eta horrelako talde bat hainbeste urtez izatea ez da erraza», gaineratu du. Beste taldeei begiratuz, lana egin dela dio eta horrek emaitzak eman dituela:

«Areto futboleko maila handia dago Tolosaldean».

Hiru derbi izango dira eskualdean eta Zubelzuk Laskorain aurkakoa nabarmendu du: «Oraindik ez dugu behin ere elkarren aurka partida ofizialik jokatuta, eta berezia izango da». Tolosaldeko nahiko maila ona ematen ari dela dio Zubelzuk: «Gazte asko daude eta ilusioak asko balio du».

# Hirugarrenera iritsi berriak

I. Garcia Landa Tolosa

Tolosala-Hirukide ikastetxea taldea iritsi berria da hirugarren mailara, bi urtez euskal ligan izan ondoren. Kike Mokoroak du taldearen ardura, eta berari laguntzen Joseba Gorostiaga, Luis Javier Lorz eta Juanma Ordozgoiti ari dira. «Taldea nahiko gaztea da», dio Mokoroak. Asko Hirukide ikastetxean ikasitakoak dira, edo loturaren bat izan dutenak. Hain justu, Hirukide Eskolapioak ikastetxean jokatzeko partidak.

Denboraldi honetarako helburua garbi dute: maila mantentzea. «Lehen helburua mantentzea da, eta gero ikusiko dugu

maila honetan zer lekutan kokatzen garen», dio Mokoroak. Talde gaztea izateak bere abantailak dituela esan du entrenatzaileak eta «konpromiso hadiko taldea» dela nabarmendu du: «Oso kontentu nago, beraiekiko eta taldearekiko konpromiso handia dutelako». Hirugarren mailan eskarmentuak garrantzi handia duela gaineratu du Mokoroak eta hori, partidak jolastu ahala, pixkana hartzen joango direla esan du.

Berezia izateaz gain, eskualdeko lau talde hirugarren mailan izatea «kirol honetarako polita» dela dio Mokoroak. «Leku gutxitan izango da horrelakorik. Horrek adierazten du areto futbolak Tolosaldean garrantzia handia



Tolosala-Hirukide ikastetxea taldeko kideak. HITZA

duela, eta kalitatea dagoela, bestela ez ginateke hainbeste talde hirugarren mailan izango».

Mokoroak gaineratu duenez, «orain dela urte dezente ez genuen uste Hirukidek Ibarraren

aurka jokatuko zuenik». Eskualdeko taldeen artean «lehia sanoa» egon daitekeela uste du Mokoroak, «beti ere elkarren artean errespetatuz». Tolosalakoen partidak ikustera jende dezente joa-

ten dela dio Mokoroak: «Kuadrillakoak, senideak... etortzen dira, eta normalean bi partida izaten dira jarraian eta horrek ere jende gehiago erakartzen du, eta zale-tuen animoak eskertzen dira».

# Taldea gaztetuta, maila mantentzea xede

I. Garcia Landa Villabona

Aurreko denboraldian Villabonako areto futbolako bi klubak, Txanpaka eta Egintza, elkartu ziren klub bakarra sortzeko eta hirugarren mailan talde bakar bat izateko. Egintza izena hartu du eta aurten ere maila berean jarraitzen dute. «Gure helburua maila mantentzea da», esan du Iñaki Otaño talde nagusiko ordezkariek eta zuzendaritzako kideak. «Aurreko denboraldian ondo bukatu genuen, bosgarren postuan, baina aurten zenbait baja izan ditugu eta jokalaririk gazteak igo dira lehen taldera. Gaztetu egin da, beraz, taldea».

Hirugarren mailan Gipuzkoako zortzi talde daudela nabarmendu du Otaño, eta euskal ligan, maila bat beherago, herrialdeko talde bakarra dagoela.



Egintza talde nagusiko kideak, Olaederra kiroldegian, entrenamendu baten ondoren. IGL

«Euskal ligan bizkaitar gehiago daude, eta mailaz jaitsiz gero, bidaia kostuak handitu egingo ziren».

Lau talde daude Egintzan. Le-

hen urtea da kadete mailakoa ateratzen dutela, eta entrenatzaileak Xabi Zuriarrain eta Gorka Rico dira. Jubenil mailakoan Iñaki Otaño bera da entrenatzailea,

erregionaleko bigarren mailakoak Iker Sanchezek entrenatzen ditu, eta talde nagusikoak Joxe Anjel Jimenezek. Bigarren urtea da Jimenez talde nagusiko entre-

natzaile ari dela. Hainbat talde izateak aurrekontu handia eskatzen du Villabona bezalako herri batentzat. Hala, klubeko kide guztiak parte hartu ohi dute dirua lortzeko ekintzetan. Besteak beste, herriko tabernetan porrak antolatzen dituzte eta etxean jolasten dituzten partidetan zozketak bat egiten dute.

Otaño dioenez, Olaederra kiroldegian jende dezente biltzen da partidak jarraitzeko. Eskualdeko beste herrietan ere partidetara zaletu asko joaten direla dio. «Barakaldon edo Santurtzin hutsik egon ohi dira kantxak, agian talde gehiago daudelako», azaldu du. Bestalde, Tolosalderako «oso aberasgarria» dela esan du Otaño lau talde hirugarren mailan egotea. «Harrobia hemen dagoela esan nahi du, eta lan handia egingen dela». Elkarren arteko partidak «bereziak» izango direla dio.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



GOIZA	OSKARBI
ARRATSALDEA	OSKARBI
BEROENA	26°
HOTZENA	18°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 argile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen etairitzien erantzukizunik.

## Farmaziak

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak**

## XVI. Argazki Lehiaketa



## ZORTZI ARGAZKI FINALISTAK, BIHAR

XVI. Hitza Argazki Lehiaketa amaitzean da, eta bihar ikusi ahal izango dira zortzi argazki finalistak. Bien bitartean, gozatu gaurko irudiekin. Gaitik behera, eta ezkerretik eskuinera, Miren Tijerorena da lehen irudia. Gazteak Venezian ateratako argazkia bidali du. Danel Leundak, aldiz, Bolivia-

ko Titikaka lakuko Eguzkiaren Irlan ateratako argazkia aukeratu du parte hartzeko. Joana Regueroren irudian Armeniako Garni inguruko parajeak ikusi ahal dira. Eta Joseba Amianok Igaratzan, Aralarren, eguzkilore bati ateratako argazkia bidali du. M.T.-DL.-IR.-JA.

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Tolosa.** Teknikifikazio zentro berriaren inaugurazioa, gaur, 19:00etan, Usabal kiroldegian.
- **Tolosa.** Galtzaundi euskara taldeak antolatuta, gaur, 18:00etan kultur etxeko areto nagusian Kike Amonarriren *Cómo ayudar en las tareas escolares si no sabemos euskera?* hitzaldia.
- **Villabona.** Malkar aisialdi taldearen 25. urteurrena dela eta, urriaren 20an jai eguna antolatuta dute. Bazkaria ere egingo dute eta txartelak bihar eta hilaren 10ean erosi ahal izango dira 10 euroren truke Malkarren egoitzan, 18:00etatik 20:00etara.

### ANTZERKIA

- **Tolosa.** El Patio taldearen *Cuenta lo que cuenta* antzezla-gaia, 22:30ean, Orbela tabernan.

### ZINEMA

- **Tolosa.** Zine forumaren barruan, gaur, 19:15ean eta 21:45ean *Chantaje en Broadway* jatorrizko bertsoia.

### ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Box.A elkartearen *Pornografía* eta Tolosa Gasa eta Tolargik 2013ko egutegia osatzeko erabiliko dituen argazkien erakusketa, Aranburun.



## TEKNIFIKAZIO ZENTROAREN IREKITZE EKITALDI OFIZIALA URRIAK 4 19:00etan

**BKOOL ERAKUSTALDIA.** (Kiroldegiko abonatuaren artean LEHIAKETA osatu da, MONTMELÓ zirkuitoari buelta bat)

Kirol teknikifikazio zerbitzuak guztion eskura daude jadanik.

**Helburua:** kirol teknikifikazioa, alegia, erredimendua hobetzeko tresnak, kirolari arruntari gerturatzeko. Txirindularitzari teknikifikazio berezia eskainiz.

Hala ere, Tolosako elkarteak eta kirolariak eta Usabal Kiroldegiko abonatuak ere zuzenduko ditu zerbitzuak, barnean maila tekniko hobetzeko. Horretarako hobekuntza fisiorako profesionalen aholkularitza kirol jarduera eta osasun arloko zerbitzu integratu, bakoitzari egokituak eskainiko dira, bertatik bertara.